

**AITA LINO AKESOLORI
OMENALDIA DIMAN BERE HERRIAN**

2011ko apirilaren 15 eta 16an

Lino Akesoloren jaiotzaren mendeurrena zala eta Dimako herriak eta Euskaltzaindiak omenaldi ederra prestatu zuten apirilaren 15 eta 16rako. Ekintza bietan Aita Linoren merezi-menduak gogoratzen ziran; gizon jakintsua izan zanez gai askotan egin eban argi, batez be euskara hizkuntzaren arloan.

Apirilaren 15ean: Udaletxeko plaka eta ekintza akademikoa.

Arratsaldeko laurak inguruan, Luis eta biok, autoa liburuekin beteta (*Salmoak* liburu barriekin eta beraren *Idazlan guztiak* liburuekin) Dimarako bidea hartu genduan; egun ederra zan, eta laster ginan han. Herri barruan sartzeko buelta asko emon ondoren, sartu ginan herriko plazan. Eta lehengo eta behin liburuak atera eta udaletxean sartu... Han batzen hasi ginan euskaltzale eta lagunak, baita Euskaltzaindiko batzorde biko urgazle eta euskaltzainak be.

Udaletxearen aurrean batu ginan 18:30ean Aita Linori eskainitako plaka agertzerako. Dimako koruak abesti bategaz agurtu ginduzan han batuta gengoan guztiok. Jose Ramon Garai,

Dimako alkateak, ekintza honi hasiera emon eutson, udaletxean jartzen zan plakaren arrasoia azalduz. Gero Andres Urrutia Badiola Euskaltzainburuak hartu eban hitza, Aita Linoren euskal letretako merezimenduak aitatu. Azkenik, biak batera sokatik tira egin eta agerian jarri eben Linori eskainitako plaka: “Aita Lino Akesolo / 1911-1991 / Euskararen alde egingdako / lan nekaezina eskertuz / Dimako Udala – Euskaltzaindia”.

Ekintza historikoaren oroipena gordetzeko argazki makinaren klik-klak eta flash distira ugari izan ziran. Eta orduan ohorezko aurrezku dotorea dantzatu zan.

Ondoren udaletzeko plenoetako aretora joan ginan ekintza akademikoa ospatzeko. Dana prest egoan. Mahaian jarri ziran hizlariak, eta jende ugari, jarleku guztiak bete eta beste asko zutunik. Alai eta dotore Lorea Bilbao Ibarra andreak ekintza aurkezteari ekin eutsan. Lehenengo Linori buruzko bideo bat



Akesolo baserria eta gainaldeko mendiak



Akesolo baserria eta inguru guztia

erakutsi euskuen: Linori buruzko argazkiak, haren familiakoak, haren baserria, Dimako inguruak eta abar.

Andres Urrutia euskaltzainburuak emon eutsan hasiera hitzaldi laburren sailari. Gogora ekarri euskun gerra ostean Linok zein ekarpen handia egin eban euskaltzaleen artean, arlo askotan argia eginez: gramatika, lexikografia, historia eta literatura, itzulpenak, etab.

Batez be hiru hitzaldi ziran ekintza akademiko honetan, eta hirurak kutsu pertsonalaz girotu zituen euren hitzalditxoak, bertako entzuleentzat atsegingarriago egiteko asmotan. Lehenengo **Julen Urkizak**, Karmel aldizkariko zuzendariak, erakutsi zituan Aita **Linoren izaerari** buruzko zertzelada batzuk hitz honeekin:

“Aita Linoren bizitzako datuak gero emongo jatzuen *Salmoak* liburuan aurkitzeko aukera izango dozuenez, nik hemen beraren izaeraren zertzelada batzuk bakarrik haizeratu nahi dodaz: Hemen, Diman, jaio zan orain dala ehun urte, eta Begoñako Karmelon hil 1991n.

Nik Aita Lino azken zortzi urteetan ezagutu izan neban, batez be *Karmel* aldizkariko idazlanak zirala eta, baita beraren *Idazlan guztiak* hiru liburukitan argitaratu nituanean be. Horregaitik konfiantza handiz lan egin genduan alkarrekin. Eta *Karmel* eskuan hartuz erraza da konturatzea zelan beti idazlan bat edo bi idazten zituan, hau da, 46 idazlan zortzi urtean, urtero sei bat idazlan.

Esan leiteke, Linok **sakatu** beharra eukala, berak ekiana danoi eskeintzeko. Hain sakon eta kritikoa izanez, bere kabuz ez zan mugitzen liburuak ateratzera... Esan leiteke lagun bat edo bultzatzaile bat behar ebala bere lanak eta jakintza erakusteko. Konturatu nintzan bere izaeraz jakintsu eta kritikoa zanez, ez ebala ikerketaren lana amaitutzat emoten.

Isilean lan egiten eban, gauzen sakontasunari heldu nahian, inguruari jaramon handirik egin barik.

Gogoratzen naz, behin, haren gelan sartu nintzanean –eta pena izan neban argazki makinarik orduan eskura ez izatea– ikuskizun ederra bizi izan nebala: mahai txikian liburuak zituan,



Obako San Joan eliza



San Joan elizatik egindako argazkia: Akesolo baserria eta ingurua

baina bat zabalik, kontzentrazio handiaz irakurtzen, eta alboan katua, jarrita eta burua jasota, liburuکو testua irakurri nahian-edo: biak geldi, ekintza berean: liburuaren esan nahia jaso nahian. (Katua bere laguna eban, berak emoten eutson jaten; eta A. Lino hil zanean, eta anbulantzia etxean sartu zanean, katua, urteak komentuan egin arren, desagertu egin zan).

Haren *Idazlan guztiak* ateratzen niharduala eta alkarrizketan genbiltzala zalantza batzuen aurrean erabakiak hartu bear ziran... Haren testuetako bizkaierazko esaera batzuk era ezberdinetan agertzen ziran gauza bera azaltzeko, eta aukeratu

beharra egoan; asko kostatzen jakon aukeratzea: esaera biak ontzat hartzen zituan...; eta luze berbetan ekiten eban, esaera biak zirala egokiak eta historian zehar erabiliak, etabar... Nik esaten neutsan: “Bai, Lino, baina, orain aukeratu, biak ezin doguz jarri-eta”... Kosta egiten jakon bat hartu eta bestea iztea, euskeraren aberastasunari eutsi beharrean.

Bere **jakintza besteen zerbitzuan** jartzen eban apaltasunez, hainbat pertsonari lagunduz... Zenbat lan anonimo egin ete eban bere bizitzan, baita komentuan be...! Hemen norbait, askotan ikasleen bat, argibide bila joaten zanean, ez zan harritzekoa purrustadaka lez hastea; baina hori lehenengo erreakzioa baino ez zan; bere berezko izaera gero erakusten eban: beti lagunduko eutson gogorik onenaz beregana jotzen ebanari. Ez zan bape handigurakoa eta zaratatsua. Jende aurrean



Akesolo baserria eta ondoko etxeak

omenaldiak esker onez hartu bazituan be, ez eutsen holako gauzei garrantzirik emoten.

Haren izaeraren ezaugarrietariko batzuk, apaltasuna eta **egia**zaletasuna ziran. Horretan Avilako Teresaren esaera bera egia bihurtuko da Linoren izaeran: ‘apaltasuna egiaz jardutea da’.

Halan be, batzuk haren bildur izaten ziran, haren kritika zorrotzaren bildur. Batzuetan bai gogor joten eban: egia zale izanik, ikusten ebanean batzuk euren buruak jakintsutzat edukiz, eta ganora gitxigaz edota euskarari buruzko jakintza gitxigaz liburuak argitaratzen, bere haserrea agertzen eban, baina beti egiaren eta jakintzaren defentsan... Jakintsu batzuk be euren bildurtxoia euken Linoren iritzien aurrean: adibidez behin, Luis Mitxelenak, hitzaldi baten aurretik isilean Linori esan eutson: “mesedez, zuk ez egin komentariorik, esatekotan gero neuri esan”.

Bere iritzia emon eta egiaren alde egiteko askatasuna eukan, pertsona, idazle eta etorri daitekeen nahi-



Jose Ramon Garai Alkatea hitz egiten

gabeak kontuan izan barik. Hau haren kritikazko idazlan ugaritan nabari da.

Eztabaida eta auzi-mauzietan sartzen zanean, ustez behintzat, egiaren alde egitearren sartzen zan; batzuetan idazlan laburretan egingo dau egiaren alde eta arinkeriak idatzitako idazlanen aurka, umore-tanta batzuk be isuriz; beste batzuetan euskal literaturako balioak aurkituz eta aurkeztuz joango da, edota santu barriak ezagutzera emonaz: adibidez, Dimako Domingo Iturrate eta Rafaela Ibarra, dohatsu barriak etab., / eta bere bizitzako **azken** idazlanean Rafael Kalinowski, karmeldar santuari buruz idatzi eban; orduan katarroa eukala eta, neuk lagundu neutsan: berak bere paperetatik irakurri eta nik idazmakina zaratatsuan idatziz; izenburu hau eukan: “Siberian zigor-lekuetatik santutasunera”. Eta egun batzuk geroago bera joan jakun zerura.

Umorea agertzen be bae-kian. Ironiaz eta **umorez** egindako idazlanak be badaukoz Aita Linok. Gizon serioa izanez, baeukan umore eta ironia sena be: adibidez ‘Itzaldi luzeegiekin kontu’ idazlanean Domingo Alberdi abade zentzudunaren esaldi jatorren arabera jardun eban, eta Orduko Khruschev jaunaren zazpi orduko hitzaldia zala-eta...





Alkatea eta Euskaltzainburua Aita Linoren omenezko plaza agertzeko unean

Markinako karmeldarren komentuan ospatzen ziran Euskal Herriko bertsolarien egun baten, Pilareko egunean, hara deitua izan zan Lino be hitzaldi bat emoteko, eta Linok umorez hasten eban hitzaldia; gaia hau zan: ‘Bertsolaritza Pernando Amezketarren garaian’.

Linori jaramon eginez, amaitzen dot: ‘itzaldi luzeegiekin kontu’ ”.

Hurrengo hizlaria, **Luis Baraiazarra**, Euskaltzain ohorezkoa, izan zan: beraren gaia: Lino eta euskaltzale lagunak:

“Antzinako gomuta banakak handik eta hemendik bilduz ehundu nahi neuke Lino Akesoloren historiaren zertxobait. Haren bizi-hariaren atal txiki bat. Zer hartzen dau atal honek? Harek bere euskal lanetan ziharduala, euskaltzaleekin izan zituana hartu-emonak. Eta horreek be ez sistematikoak, neure gomuten begitiki jasorikoak baino.

Umetan astoa sokatik hartuta errotara urunetan joaten ginanekoa bizi-bizi dogu gogoan. Errotak garaua urun bihurtzeko



ateratzen eban sakoneko eta hondoko hotsa be ez jaku oraindino joan. Irudi hori jatort behin eta berrero gogora Lino Akesoloren unean uneko euskal produkzio batzuetan begiak ezartzean.

Begoñako Karmelon ezagutu neban A. Lino Akesolo, 1962tik 1966ra bitartean Teologiako lau urteko ikasketak han egin nituan-eta. A. Lino gure irakasleatariko bat zan. Baina haren gaiak pixka bat bazterrekoak ziran: Ordenaren historia, Patrologia, Misiologia... gazteok ia atsedean antzera hartzen genduzanak; berari be, ziur asko, ez jakozan astun egingo. Kasu askotan, hasieran gu material egokiak irakurtzen eta estudiatzen jarri ostean, berak liburu txiki zahartxuak irakurri eta notak hartzeari ekiten eutsan. Gero jakin neban klasikoen debotziozko liburuak zirala. Esan nahi dot, Teologiako eskola hareek ez jakozala inondik be eragozpen izan bere euskal gaietan buru eta bihotz murgiltzeko. Hor eban bere *errota* eta hor eihotzen eban urun fina...

Uste dot 1963 inguruan hasita, Eliz testu ugari izango zituala esku artean Bilboko elizbarrutirako euskeraz jartzeko. Litu-

gia Santuaren Konstituzioa “Sacrosanctum Concilium” izenekoa izan zan Vatikanoko II. Kontzilioan onartu zan lehenengo dokumentua, 1963rako prest egoana. Hasiera haretan behin-behinekoko testuak itzultzen nahiko lan izan eban. Liturgiako eta sakramentuetako errito-liburuak itzuli behar izan zituan batez be; gerokoak badakigu elkarlanean egin zituena; izan be, euskal liturgi itzultzaile taldea laster sortu zan, bera Bizkaiko taldearen buru zala.

Dana dala, Iratzeder-Lertxundi beneditarren lapurterazko Salmoak bizkaierara egokitzen jardun ebanekoa dot batez be gogoan. Ikasleok, geure mundutxuan bizi ginan, baina ikusi ez arren uruna, entzuten genduan errotaren hots urruna. Irakasleen ahoz iraitzen ziran gugana tantaka halako komentario eta kulturako barri solteak, esaterako, Linok errima egokien bila izan ohi zituan neke eta pozak. Iratzeder sarri etortzen zan Begoñara. Afaltzen gurekin izaten zan eta biharamunean Aita Linok eta biak ordu luzeak igarotzen zituen elkarrekin Salmoen bizkaierazko bertsioa eratzen, egokitzen, orrazten. Beraz, *Salmoak* liburua bizkaierazko bertsioan eratzen eta jaiotzen ikusi genduala esan geinke.

Beste gauza esanguratsu bat be hur-hurretik sumatu genduan Begoñako urte hareetan: A. Lino Akesolo Euskaltzain oso izendatu ebanekoa. 1963ko apirilaren 5eko data dau izendapen horrek. Gure lagun euskaltzale batek, gure aurrean, zorionak emon eutsazanean, pozez zoratzen erantzun euskun. Handik denbora gitxira pertsona berak motibo bera aitatu eutsanean, ostera, haserre baten purrustadaka hasi jakun. Hor bitartean zer edo zer jazo zala igarri genduan, baina ez genkian zer. Tarte hori nahiko laburra izan zalakoan nago, baina berak kazetari batek eginiko elkarrizketari erantzunez, sei hilabete edo izango zirala dino. Hona kazetariaren itauna eta A. Lino-ren erantzuna:

– *Euskara batua eta ‘b’ren arazoak izan ziren zuk euskaltzain oso izateari uzteko izan zenituen arazoak?*

– *Ez, utzia nion batuaren arazoaren aurretik: 1964. urtearen aldera utzia nion, izendatu nindutenetik seiren bat bila-*



Lorea Bilbao andrea ekintza akademikoa aurkezten

betera, Euskaltzaindiaren barnean, horrelako borroka arra-roak ugaltzen hasiak zirela eta. Harrez geroztik, euskaltzain urgazle ibili naiz, zenbait batzordetan laguntzen eta hola. (Hemen 1, 1986, 13. zenb., Xabier G. Arguello kazetaria).

Gai honetaz hainbat argibide emon zituan Jose Antonio Arana Martijak Gernikan 1989an Euskaltzaindian sartzeko hitzaldia emon ebanean; eta Joan Mari Torrealdaik eta Imanol Murua Uriak idatziriko *EUSKALTZAINDIA ekin eta jarrai* liburuan holan biltzen dabe albiste hau:

60ko hamarkadaren erdialdera, Gorostiaga, Erkiaga eta Akesolo euskaltzain osoek Euskaltzaindiarekin harremanak bertan behera uzten dituztela esanez idatzi diote Euskaltzaindiari. Gorostiaga eta Erkiagarenak bere onera datoz. Baina Lino Akesolok ez du nahi aurrerantzean osoko izan (1963tik zen), nahiz eta prest dagoen urgazle eta liburuzain gisa jarraitzeko.

Euskaltzaleekin izan zituan hartu-emonetara barriro etorritz, Iratzederrekin estu-estuak izan zituan. Bertsolaritzako hainbatekin be oso ondo konpontzen zan eta gai horretan aditu eta jakitun handitzat euken bera. Izan be, bizi guztian estimu handian izan eban bertsolaritza. Urte hareetan Elizaren babespera jo behar izan eben bertsolariak eta Markina-Xemeingo Karmeldarretan ospatzen zan urtero “Bertsolari eguna” urriaren 12an. Lino Akesolo be urtero etortzen zan Begoñatik, Bilbon bizi zan Basilio Pujana bertsolari zeanuritarra lagun ebal. Begoñan igaro eban ia bizi guztia A. Linok, baina sei urteko etenaldia izan eban segida horrek: 1969tik 1972ra Donostiako Karmeldarren Priore izan zanekoa eta 1972tik 1975era Markina-Xemeingo Karmeldarren Priore izan zanekoa. Donostian zala, euskaltzale eta idazle askorekin izan zituan hartu-emonak, baina badakit Nemesio Etxanizekin ia egunero izaten zala; honek, Karmeldarretako kapera baten meza emon ondoren, euskal kulturako mundutxua Aita Linorekin polito astindu barik ez eban handik alde egiten-eta. Markina-Xemeinen zala, Jesus Gaztañaga etortzen jakon sarri eta astebete eta hamar egun igarotzen zituan komentuan, ikastoletarako testuak prestatzen ziharduala. Markina-Xemeingo urte hareetariko baten, nor eta Jokin Zaitegi bera izan genduan bisitan. Laburra izan zan haren egotaldia: bazkaltzen izan zan gurekin eta gero pixka baten egongo zan A. Linorekin. Bazkalordu guztian ez zan isildu euskerari buruzko gauza asko aho-minean erabiliz...

Urte hareetan (Markina-Xemeingo Prioretzako urteetan) Manu Sotaren karpetak izan ohi zituan eskueran. Beraz, *DICIONARIO RETANA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA* obra handia prestatzen ziharduan buru eta bihotz. Baina Retana bera ez zan Markina-Xemeingo komentutik agertzen. Hango hiru urteak amaitu eta barriro Begoñara bihurtu zanean, emon eutsan amaiera obra handi horri.

Iratzederren bitartez edo, Beneditar euskaldunekin beti izan zituan hartu-emon estuak, batez be Lazkaokoekin. Honeek argitaratzen eben *Jaunaren Deia* aldizkarian be hainbat lan argitaratu zituan.



Euskerazaintzak Akesolo baserrian jarritako plaka (1989an)

Euskal Liturgi Itzultzaileen buruetarikoa izan zan. Estimu handian izan eben guztiak eta berak be hartu-emon bihotze-koak zituan hango kideekin, batez be Mikel Zarate, Karmelo Etxenagusia, Joan Mari Lekuona eta beste batzuekin.

Holan agertu nahi izan dogu A. Lino Akesolo, antzinako gomuten puska batzuk bilduta, urun fina eihotzen eta euskaltzale lagunekin hartu-emonetan”.

Hurrengo **Patxi Uribarren** euskaltzain oso eta Aita Linogaz urte askoan bizi izan danari egokitu jakon hitz egitea. Mezu hau itzi nahi izan dau izenburutik bertatik hasita: A. Lino irakurle aseзина, ikertzaile sakona eta hiztegitile zorrotza:

Euskaltzaindiak, ekitaldi honetarako Aita Lino Akesolori buruzko lan hau eskatu eustanean, oso pozik eta gogotsu hartu neban jarduna, hainbat urte alkarrekin bizi izan ginan eta.

Halan da bere, hemen Diman banatutako orriak, nik esan beharreko gauzarik gehienak labur batzen dituela ikusi dot.

Beraz, bertan aitatu baino egiten ez diren puntu batzuk sakontzeari ekingo deusot.

1. Irakurle aseezina.

Jendea irakurtzera bultzatzeko kanpainak eta egiten diren garai honetan, ez datorkigu txarto Lino Akesolok izandako irakurzaletasun handia gogoratzea. Honako hau dinosku Igone Etxebarria andreak udalak banatutako orrian: *‘irakurle sutsua izan da, beti libururen bat besapean hartuta. Liburutegi eta liburu-dendetan sagua lez ibiltekoa zan, jakinguraz beteta’*. Bizitza osoan bide horretatik jokatu eban, eta hortik lortu eban halako jakintza maila zabala.

2. Ikertzaile sakona.

Julen Urkizak KARMEL SORTAn argitaratutako *Idazlan Guztiak* hiru liburuetan argi ageri da zein zabala izan zan Aita Linok jorratutako ikerketa-arloa. Julen Urkizak liburuaren sarrean aurkibide eder bat eskaintzen deusku:

- *Euskara, euskal gramatika, euskal gai ei buruzkoak*: 82 idazlan.

- *Euskal idazleei buruzko lanak* (mendez mende aurkeztuta): 104 idazlan.

- *Kondaira eta biografia-artikuluak nabiz obarrak*: 91 idazlan.

- *Liburuen barri-emotea*: beste 48 idazlan.

- *Itzulpenak bere hainbat ditu*; gehienak erlijio-gaietakoak.

Ikerketa-lan zabal hori biblioteca eta artxiboetan eten barik lan egin ostean egina dogu. Guztira 287 lan baino gehiago. Hainbat ez-izen erabili zituen: Axmutil, Basabil, Amuxalde, Oba...

Aztertu zituen euskal idazle askoren artean hona hemen ezagunenak: *Etxepare, Joannes Leizarraga, Juan Tartas; Joanes Etxeberri Ziberutarra; Pedro Ignacio de Barrutia, Aita Kardaberas, Mogel euskal idazle markinarrak (Joan Antonio, Juan Jose eta Bizenta Antonia), Asterloa, Frai Bartolome Santa*



Lino Akesoloren senitartekoak

Teresa, Jose Pablo de Ulibarri Gamindez; Aita Joan Mateo Zabala; *Indalezio Bizkarrondo "Bilintx"*, *Arrese Beitia*; *Arana Goiri*; Lizardi, Lauaxeta, Resurrección M^a Azkue, Ormaetxea (Orixe), Pierres Lafite, Iratzeder, Oihenart, Manuel Lekuona, Eusebio Erkiaga, Aita Mokoroa, *Enbetia 'Urretxindorra'*, Xalbador, Matxin, Jon Oñatibia, *Txirrita* eta beste zenbait bertso-lari... Katea luzea dogu Linok esku artean erabili eta uherra kenduta gure esku jarritakoa.

Euskal gaien artean honelakoak eta antzerakoak ageri dira: Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste; Aditz-izena Lope idazlearen liburuan; Euskerea antxiñako Yesuiten eskoketan;

Arabako euskal abestiak direala-ta; Bertsolaritza Fernando Amezketarraren garaian, Euskara batuaren billa, Karmel aldizkariaren historia...

Liburuen barri emoteko lanak: Elorri; Shakespeare euskaraz; Bergili-ren idazlanak osorik; Euskal-Aditza. Bizkaiera. Egillea: Pedro Pujana; Kondaira eta biografia-artikuluak nahiz oharra; Oienart: Atsotitsak eta Neurtitzak (Edizio berria); Joxe Miguel Barandiaran nor dogun; “Jaunaren Deia, euskal teologo-en aldizkaria...

Aparteko aipamenak. Ardura handiz hartu eban, bere herriarren eta fraide lagunuen barri emotea:

a) Dimako semeak: hurrengoak aztertu zituan: Obako semea zan **Pedro de Madariaga**, kaligrafo, euskalzale, gramatikalaria, bi lanetan; Baltzolako semea zan **Ilario Soloeta** abade behargin sutsua, beste bi lanetan; Emaldiko semea zan **Agustin Atutxa Bikarregi** ‘Mugarra’ olerki liburuaren egilea lan batean; eta santu izendatua izateko bidean dan, **Domingo Iturrate Zubero, hirukoiztarra**, beste bi lanetan.

b) Karmeldar euskaltzale idazleak: honakook aitatzen ditu: Ametzaga’tar Bingen, Aita Narziso, Aita Ipolito Larrakoe-txea, Aita Lon Arteaga, aitatutako Aita Agustin Atutxa, aita Jose Domingo Ugartetxea musikari ospetsua, aita Nikolas Batiz “Xalokin’ olerkaria, eta abar.

3. Hiztegitik zehatza.

Lino izan genduan 9 liburutan argitaratutako “*Diccionario Retana de Autoridades del Euskara*” (*Euskeraren lekukoen hiztegia* deitua izan dana) hiztegia prestatu ebana. Horri buruz honako hau dinosku Luis Arostegi, olerkari, itzultzaile eta idazleak Linoren *Idazlan Guztiak* liburuari egindako sarrera luzean: “*Iztegi onetan idazle zarrak, aurreko iztegiak, gaurko idazkiak eta erriari entzundakoak jaso dira, itz bakotxa eta bere adierazpenak jasotako esaldian edo adibidean kokatuz*”.

Hiztegi horrek ez eban izan jendearen artean behar adineko zabalkunderik. Batetik, bere izenean ez zalako agertu, eta,



Karmeldarrak udaletxeko plakaren aurrean

bestetik, epe laburrera *Orotariko Euskal Hiztegia* argitaratzean ordezkatua izan dalako.

Hiztegi horren eragina: halan da be, gogoratu behar da gaur egun merkatuan ditugun hiztegi handi moderno gehienak 2080ko hamarkadetan eginak ditugula. Eta sasoi horretan eskura eduki eben euskarako sarreren iturririk nagusia Linok argitaratutako hiztegia izan zala:

-“Bostak Bat” taldeak hiztegi hori erabili eban hainbeste zabaldu zan *Euskararako hiztegia* (30.000 ale inguru) eta *Europa hiztegia* egiterakoan.

-Nabaria da eragin hori Elhuyarrek argitaratutako hiztegieta bere, batez bere euskalki mailako hitzak tratatzerakoan. Aitatu-tako hamarkadan eskura zegoen iturri nagusia izan zan.

-*Orotariko Euskal Hiztegia* deritzanean bere, bada ezpada edo, jaso egin ditue Lino Akesolok euskalki-alorrean eskaintzen dituen ohar zehatzak, bera izan dogulako azken mende honetan bizkaiera (batez ere) eta gainerako euskalkiak ondoen ezagutu dituenetako bat.

Ikerketa eta hiztegi-gintza arloko lan izugarri hori, gainera, orain eskura ditugun tresnen laguntza barik burutu eban. Gaur, baina, Interneten ez dagoenak ez dauka baliorik. Hori dala eta, lan-tresna izatetik kanpo geratu da. Ahaleginak ebin beharko dira, bere lanak sarera erodateko. Egunen batean, norbaitek hogeigarren mendeko azken aldiko hiztegi-gintzari buruzko tesiren bat egiten badau, argi agertuko da Linoren lan horren eragina.

4. Linoren euskara motari buruz zertxobait.

Lino Akesolo, ikertzaile izateaz gainera euskal idazle klasikoko bat dogu.

- Euskalki askotan idatzi eban. Gehienez, gipuzkeraz (*Diario Vascon* eta *Jaunaren Deian*) eta bizkaieraz (*Karmel*, *Zer*, eta abarretan).

- Hasieran erabilten eban euskara gerra aurreko ohituren arabera da. Geroago ortografia batuagoa eta euskara lan-duagoa, jasoagoa, klasikoen arabera da.

- Euskara oso aberatsa erabiltzen dau, berbe dagokienez. Bere lanetan guztira 7.000 berba ageri dira. Aditzean Bizkaiko klasikoen jarraitzaile agertzen jaku.

- Gaiak oso zehatz aztertu arren, euskara ulergarria erabilten dau. Ez da esaera luzeen aldekoa. Ondo jakiten eban 'non' 'zelako' euskara erabili; herritarrentzat zenean erraza, bizia, atsegina; goi mailako ekitaldietan jasoagoa, gaurko euskara batetik oso hurrekoa.

M. Zaratek honela dino: «Euskera zaarra ta erri-izkera ondo ezagutzen dauz, eta bizkaierazko idazlerik jatorrenetarikoa do-

gu berau» (*Bizkaiko Euskal Idazleak*, 248 orr.), eta K. Etxenagusiak: «Erri-euskera aberatsa ta gure idazle zarrena gitxik eza gutzen dabe Bizkaian Aita Linok baizen ondo. Gipuzkera ere ainbat idatzi dau, baiña Obako fraide onen bizkaierak berarizko gozotasuna ta berezkotasuna ditu ezaugarritzat. Iker-lanak, iztegia, kritika zorrotzak, itzulpenak t.a. eskeini deuskuz orain artean» (*Euskal Idazleak Bizkaieraz*, 252 orr.).

5. Euskara batua eta Lino Akesolo.

Euskara batuaren inguruko eztabaidek kalte egin eutsoen. Egite-bidean zan euskara batua euskalkien kaltetarako zala us-te izanez, kritika gogor batzuk idatzi zituen. Bere ikuspegia ‘*Euskara batuaren billa*’ izenburua daroan lan luzean agertzen dau argien (*Kardaberaz*. 1977-6, 47-70). Euskaltzain oso iza-teari uko egin baeutson be, Euskaltzaindiaren batzordeetan lanean jarrai eban.

Linok, eztabaida eta eretxi guztien gainetik euskara maite ebanez, gizartean bizirik eta indartsu ikusi nahi eban. Horregaitik, eretxiak eretxi, batzuekin nahiz besteekin euskararen alde lanean jardun izan eban.

6. Euskara eta Biblia.

Ekitaldi honen amaieran *Salmoak* liburua oparituko jatzue-nez, bide batez esan gura deusuet arlo hau gehien eta sakonen aztertu dauan idazlea izan dogula. Lino izan dogu Joannes Leizarraga jaunaren lehen itzulpenetik hasi, eta gaur arte euskaratu izan diren bibliaren itzulpenei buruzko daturik zehatzenak eskaini deuskuna (*Jaunaren Deian*).

Linok berak be, lan handia egin eban Biblia euskaratzen. Liturgian erabiltzeko testuak euskaratu zirenean, Bizkaiko batzordeko idazkaria zanez, buru-belarri ekin eutsen lan horri. Biblia euskaratzen egindako lanaren adibide argia dogu Iratze-der-Lerchundik argitaratutako ‘*Salmoak*’ liburuaren bizkaieraz egin euskun bertsoa”.



A. Linoren oroipenezko meza Dimako parrokian

Gero Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko ordezkariak, Miren Dobaran Urrutia andreak, aurkeztu eban Lino Akesolo Bizkaiko kultura eta bizkaieraren ikuspuntutik...

Eta ekintza akademiko honi Jose Ramon Garaik, Dimako alkateak, emon eutson amaiera hitz laburrekin.

Ekitaldia amaitu ostean, han egozan guztiei Akesoloren *Salmoak*, liburu barria, oparitu jaken. Dimako korduak kantu batzuk eskaini euskuzan, eta danak pozik.

Segidan aretoan bertan Udalak mokadu gozoak eskaini euskuzan, eta bitartean aukera ona izan zan alkarrizketa eta sola-

saldirako. Argazkilariak argi-txinparta hotsean jardun eben geratu barik.

Apirilaren 16an: meza eta bazkaria.

Hurrengo egunean, apirilaren 16an, beste ekintza interesgarri bi izan ziran: Dimako parrokian meza santua eguerdiko ordu batetan, Aita Lino gogoratuz, eta gero herritarren arteko bazkaria.

Goiz urten genduen Markina-Xemeindik Luisek eta biok; barriro be autoa Linoren *Idazlan guzkiak* liburuekin ia beteta. Eguraldi ederra agertu zan gure pozerako, zelaia ihintzaz buztita eta biztuta.

Ia ordu bi aurretik eldu ginan Dimara; gure asmoa zan lehenengo Aita Linoren baserrira hurreratzea. Eta bete genduan asmoa. Akesolo baserriari argazkiak atera geuntsazan, baita inguruari eta ikusten ziran mendiei be.

Akesolo baserri handian ikusi genduan 1989an Aita Linori jarritako plaka Euskerazaintzaren izenean. Bisitatu genduan baserria baino zerbait gorago San Joan eliza dago, auzoko eliza;

hemendik mende hartzen dau begiak inguru guztia; dana ikusgarri. Argazki ugari atera genduan.

Eta gero, mezako ordua hurreratuz joiala -eta, beherantz jo genduan; bide luzetxoa, ia bost km.





Sakristian batu ginan 13 abade; aspaldian alkar ikusi barik -eta barriketa ugari izan zan.

Mezan Dimako parrokoa, Esteban Orbe, izan zan buru; es-
kertzekoak izan ziran Aita Linori buruzko berba gozoak. Herrita-
rren artean lehenengo bankuan Aita Linoren senitartekoak ager-
tzen ziran. Mezaren amaieran herriko bertsolari bik bertso eder
eta gozoak eskaini eutsezan Aita Linori. Eta bertsolari biei Lino-
ren *Idazlan guztiak* obraren hiru liburukiak oparitu eutsezan.

Elizatik urten eta jatetxean jende askoren arteko bazkaria
izan zan herri eta elizako agintariekin. Bazkalondo alaia kantuz
eta bertsoz gozatua.

Eskertzekoa da Mari Karmen Ibarra andreak egin eban lana,
batez be Aita Linoren liburuak banatzen eta saltzen.

J. U.